

hariak

2023ko iraila

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Honako hauen laguntzarekin egin da argitalpen hau: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID), 2022ko proiektu honen esparruan: *Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa. Herritartasun globala eraikitzeko konpromiso sozialaren proposamena, pandemia osteko testuinguruan*. Eta eLankidetzeta - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, 2023ko proiektu honen esparruan: *Euskal-kolonbiar artikulazioa, hezkuntza emantzipatzailea eta ikerketa kritiko kolaboratiboa esperimentatzeko, ikasteko eta komunikatzeko*. Testuen edukiaren erantzukizuna Hegoarena baino ez da, eta ez dute nahitaez AECIDen eta eLankidetzaren iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizábal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

M^a Luz De la Cal Barreda

Jone Martínez Palacios

Jaume Martínez Bonafé

M^a Jesús Martínez Usarralde

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

Hariak, 15.zk, Ikerketa konprometituta,
2024ko iraila

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Azaleko argazkia:

Gari Garaialde / Bostok Photo.

“Matxino artean” ataleko argazkia:

Marina Gallardo.

Mila esker biei, ale honetan laguntzeagatik.

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da,
eta horren lehengaia baso-kudeaketa
iraunkorraren bitartez eskuratu da.




Agiri hau Creative Commons-en lizentzian dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Finantzatzaileak:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus



aurkibidea



2

editoriala

Ikerketa konprometitua; bizitzak erdigunean jarrita ikertzea

Joseba Sainz de Murieta

4

sakonean

Ezagutu partekatzeko, partekatu eraldatzeko.

Ikerketa autonomoaren printzipioak

Ariana Sánchez-Cota, Juan Rodríguez-Medela eta Óscar Salguero

12

solasean

Europar iruditerian, ijitoek izan behar ez dena irudikatzen dute

Pastora Filigrana

16

ekin lanari

Martin Etxea, joan-etorriko elkartasuna

Eneko Gerrikabeitia

18

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak Fabricando mujeres • Las que sobrevivimos

argitalpenak Investigaciones en movimiento. Etnografías colaborativas, feministas y decoloniales • Gizartea eraldatzeko hezkuntza eta ikerketa. Euskadiko eta Kolonbiako unibertsitate-komunitate kritikoaren arteko artikulazio-esperientzia sistematizatzea

erakundeak La Laboratorio. Espacios de investigación feminista • t.i.c.t.a.c. taller de intervenciones críticas transfeministas antirracistas combativas

ezinbesteko agenda Ikastaroa “Grandes desafíos de hoy para un futuro sostenible. Agendas para el cambio desde una mirada sistémica” • Latinoamerikako V. Kongresua: “Ecología política y nuevos horizontes de rebeldía: enraizando saberes, r-existencias y alternativas”

22

matxino artean

Por si acaso

Estíbaliz Madrazo

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Ikerketa konprometitua; bizitzak erdigunean jarrita ikertzea

Zientzia-esparruaren zati handi bat ere kutsatu duen mundu kapitalista honetan, ikerketa konprometitua analisi kritikorako eta eraldaketarako tresna bat da, pertsonak eta haien beharrak erdigunean jartzen dituena, eta ikerketa hegemonikoaren joera merkantilista eta estraktibistei aurka egiten diena. Ikerketa konprometitua ez da mugatzen errealitatea behatzera eta aztertzerara; aitzitik, gizarte-prozesu emantzipatzaileen barnean sartzen da, eta lurraldeetan antolatuta dauden subjektuekin nahasten da, bizitzeko alternatiba duinen bila.

Ikerketa merkantilistak eta estraktibistak, emaitzak lortzeko eta argitalpenak kaleratzeko ahaleginean, ez du kontuan hartzen bere jardunak pertsonengan eta ingurumenean duen eragina, eta erdigunean jartzen du sistema kapitalista, patriarkal eta kolonialistaren interesak elikatzea. Ikerketarako galderak eta gaiak nondik datozen, ikertaldeak nola osatzen diren, zer metodologia eta zenbat denbora izango den, lortutako emaitzak nola integratzen diren prozesu osoan... Kontu horiek ez dira aintzat hartzen jarduera-esparru horretan. Gizarte-aldaketarekin konprometitutako ikerketa defendatzen dugunok, aldiz, gogoan ditugu.

Joera neoliberalerako logika eta praktika horiek zalantzan jarri eta horien aurka egitea, eta pertsonen ongizatea eta planetaren iraunkortasuna lortzea lehentasun dituen ikerketa sustatzea kontu politikoa da, eta akademiaren eta ikerketa-zentroen agendetan landu beharra dago.

Ikerketa konprometitua printzipio etikoetan eta justizia sozialeko printzipioetan oinarritzen da, eta bere asmoa komunitateak ahalduntzea da, dituzten jakintzak eta esperientziak errespetatuz eta horien balioa nabarmenduz; horretarako, konfiantzazko harreman horizontaletan oinarrituta lan egiten du, unean uneko arazo premia-koenak identifikatzeko eta haiei erantzuteko. Elkarlana oinarri duen ikuspegi horrek, ikerketa-prozesua aberasteaz gain, emaitzak guztion onerako aproposak izango direla ere bermatzen du.

Ikerketa konprometituarentzat funtsezkoa den alderdi bat metodologia hegemonikoei kritika erradikala egitea da; horretarako, beste metodologia kritiko batzuk erabiltzen ditu, hala nola metodologia feministak. Ikerketa feministarako metodologiek ezagutza sortzeko

moduak berak birpentsatzera bultzatzen gaituzte, eta zalantzan jartzen dituzte ezagutza hori eraikitzeke erabilitako metodoak. Metodologia horiek jakintza hegemonikoek naturalizat hartuta duten neutraltasunari eta arrazionaltasunari aurre egiteko sortu dira, eta baztertu egiten dituzte zientzian hain ohikoak diren objektibotasun eta unibertsaltasun faltsuak. Metodologia feministak zenbait alderdiri esker nabarmentzen dira. Batetik, ikuspegi inklusibo eta ekitatiboa dute, eta horrek ahots guztiak entzuten eta aintzat hartzen direla bermatzen du. Bestetik, berdintasuna eta errespetua sustatzen dute; zapalkuntzei begirada interseksional batetik aurre egiten diete, eta prozesu osoan zehar sexu- eta genero-aniztasun oro aitortzen eta integratzen dela ziurtatzen dute.

Ikerketa konprometituan metodologia feministakerabiltzeak botere-egiturei eta zientzia hegemonikoari kritikoki begiratzea dakar, bai eta ezagutza kokatuari balioa ematea ere (Donna Haraway). Horrek esan nahi du ezagutza ezin dela bereizi balioetatik; pertsona guztiok dauzkagula ikuspegi jakin batzuk, gure esperientzia sozialek baldintzatuta, eta posizio politiko hori argi eta garbi adierazi behar dela. Ikusmolde horrek ikerketari etikoa izaten laguntzen dio, eta gizarte justu, demokratiko eta inklusiboak sortzen ere laguntzen du.

Azken batean, ikerketa konprometituak beharrezkoa eta premiazkoa den paradigma-aldaketa bat dakar akademiaren eta zientziaren esparrura. Bizitzak erdigunean jarriz eta, besteak beste, metodologia feministak, aplikatuz baizik ez dugu lortuko ezagutza sortzeko eredu kapitalista batetik eredu ekosozial batera igarotzea.

Joseba Sainz de Murieta.
Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakaslea eta
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzako kidea.



Argazkia: La Corrala.

Ezagutu partekatzeko, partekatu eraldatzeko. Ikerketa autonomoaren printzipioak

“**La Corrala**” **Ikerketa Antropologikoen Taldea** ikerketa-talde independentea da, Óscar Salguero Montañok, Ariana Sánchez Cotak eta Juan Rodríguez Medelak osatua. Taldearen lana ekintza politikora bideratua da batez ere, tresnak sortuz “gizarte-mugimenduetatik” eta “gizarte-mugimenduetarako”. Zehazki, gaur egungo hiri-erlaketako prozesuek sortzen dituzten gizarte-gatazkei buruz egin du lan, baita herritar antolatuek ematen dituzten erantzunei buruz ere. Bere ikerketa-ibilbidea beti joan izan da bere (edo bere kideen) aktibismo politikoaren eskutik, etekin akademikoaz edo ekonomikoaz gain, gerorako beste helburu bat ematen saiatuz ikerketari: balio izan dezan gizarte zuzenago, bidezkoago, ekitatiboago, solidarioago eta ekologikoagorantz aurrera egiteko.

Sarrera

Ikerketa konprometituaz hitz egitea posizionamenduaz hitz egitea da, ezagutza kokatuaz eta, aldi berean, politikoaz, zentzurik zabalenean. Jakintzak beste posizio batetik sortzea da kontua, ez posizio hegemonikotik, jakintza horiek baliagarriak izan daitezen txertatzen diren errealita-

teetan. Prozesu horretan zalantzan jarri eta aldatu egin behar dira hainbat parametro epistemiko-metodologiko murriztaile eta menderatzaile, horiek mugatu egiten baitute gure substantibotasunaren ezagutza zinezkoagora eta zintzoagora hurbiltzea.

“La Corrala” Ikerketa Antropologikoen Taldean azken hiru bosturtekoetan egin den bideak aukera eman digu testu honetan aurkezten dugun Ikerketa Autonomoaren proposamenari forma emateko. Baina ez dugu ezer asmatu eta asko dira alde horretatik aurki ditzakegun erreferenteak. Horrela, historikoki baztertutako kolektiboek ekar dezaketen “ikuspuntuz” elikatu gara, baita ezagutzaren ekoizpenaz ere (Harding, 1987); “jakintza partzial eta kokatuen” garrantziaz (Hara-way, 1995), nondik abiatu garen kontuan hartuta eta kontu etiko gisa esplizitu eginda, gure subjektibotasun anitza aitortuz eta errealitate konplexuak sinplifikatzen dituzten esentzialismoak saihestuz.

Bestalde, “elkarlaneko etnografiak” eta “ikerketa militanteak” erakutsi digute ikerketa nola bihur daitekeen praktika politiko (Denzin, 2003), ekin-tza politikoko prozesuetan zuzenean parte hartzea ikerketari berari bide ematen dion baldintza bihurtuz, hierarkia inplizituak nahita apurtzen saiatuz (Hale, 2011; Rappaport, 2008), “jakinduriaren arteko elkarrizketa” gisa (Dietz eta Álvarez, 2014), elkarrizketa baliagarria, potentzialki horizontala, pragmatikoa eta eraldaketa politikokoa (Graeber, 2008).

Baina gure erreferenteak ez dira teorikoak bakarrik, baizik eta praktikak berak eta bidean aurkitu ditugun bidaiakideekin izandako esperientziak eta haien zalantzan jartzeak lagundu digute gure egungo ikerketa-proposamena osatzen. Akademia eta sektore profesionalak mundu hobearen alde borrokatzen duten kolektiboekiko interes handiagoa erakusten ari diren garai hauetan, proposamen honen helburua da erauzte-dinamika haustea, haren helburua oso urrun baitago lan egiten den pertsonen eta kolektiboen interesetatik.

Ezagutza meritu-etekinetan (akademikoak zein diruzkoak) pentsatzen den testuinguru honetan, ezinbestekoa da erakustea hori baino askoz ere gehiago izan daitekeela gizarte-ikerketa

“elkarlaneko etnografiak”
eta “ikerketa militanteak” erakutsi
digute ikerketa nola bihur daitekeen
praktika politiko

“... prozesu autonomoa, bai maila teknikoan, bai maila ekonomikoan eta politikoan, lanean eta erabakiak hartzean horizontaltasunaren printzipioaren baitan kudeatu”

eta benetako tresna bihur daitekeela gure errealitateak eraldatzen eta mundu bidezkoago, ekitatiboago, solidarioago eta ekologikoagorantz joaten laguntzeko.

Ikerketa Autonomoa

Honela defini dezakegu gure Ikerketa Autonomoaren proposamena:

... prozesu autonomoa, bai maila teknikoan, bai maila ekonomikoan eta politikoan, lanean eta erabakiak hartzean horizontaltasunaren printzipioaren baitan kudeatua, malgua eta errealitate dinamiko eta aldakorretara moldatzeko modukoa, bere subjektibotasuna aitortzen duena baina prozedura zorrotzak aplikatzen dituena, eta, arrazionaltasuna eta emozionaltasuna konbinatzen dituena ezagutzaren zentzua eta aplikazioa bilatzeko orduan, era ziklikoan, non teoria eta praktika etengabe atzeraelikatzen baitira (García, Salguero, Sánchez-Cota eta Rodríguez-Medela, 2011:50).

Definizio aski deskriptiboa bada ere, merezi du gizarte-ikerketa ulertzeko modu hori egituratzen duten printzipioetan gelditzea, “zerbaitetarako bali” dezan. Printzipio horiek azalduta eta, bereziki, printzipio horien inguruko eztabaidaren bidez, nolabait lagundu nahi dugu gizarte-zientzia aplikatuei buruzko eztabaidan, edo, hobeto esanda, gizarte-zientzien aplikagarritasunari buruzkoan, zehazki “zerbaitetarako balioko duen” antropologian, hau da, “gizartea eraldatzeko tresna bihur daitekeen” antropologian (Salguero, Sánchez-Cota eta Rodríguez-Medela, 2022:82).

Ondoren, definizio hori xeheago azalduko dugu, zeri buruz ari garen zehatzago ikusteko, ikerketa autonomoaren sei printzipio edo orientabideren bidez:

“balioa eman nahi dio gure ikerketaren eremu desberdinei buruz (zer ikertzen dugun, zertarako, norekin, etab.) erabaki ahal izateak duen garrantziari, murrizketarik gabe”

Autonomia

Printzipio honek balioa eman nahi dio gure ikerketaren eremu desberdinei buruz (zer ikertzen dugun, zertarako, norekin, etab.) erabaki ahal izateak duen garrantziari, murrizketarik gabe, eta erakunde finantzatzaileekin eta sustatzaileekin azken negoziatorik egin gabe; “kontuak emanez” geure buruari eta lan egiten dugun pertsonari, ez beste inori.

Horren harira, autonomiaz hitz egin dezakegu elkarrekin lotutako hainbat mailatan: autonomia politikoa, autonomia ekonomikoa, autonomia teknikoa eta ikasteko autonomia.

Autonomia politikoak, jakina, autonomismoa edo mugimendu autonomoa ekartzen du gogora. Gure kasuan, bata bestearengandik ez datorren arren, bai egia da zenbait praktika partekatzen ditugula, hala nola horizontaltasuna, estrategiak eta taktikak espazio bakoitzeko errealitate zehatzetara etengabe egokitzea (“sormenezko moldagarritasuna” hitz egitean sakonduko dugu horietan), edo botere-egitura zabalagoen mende ez egotea (alderdi eta sindikatu tradizionalak autonomismo-rako eta erakunde akademiko handiak guretzako). Ordena horretan, jarrera anarkista eta libertarioekin ere lotu gaituzte (Roca, 2008, 2012; Tarín, 2015), eta haiekin ere partekatzen ditugu ideiak, praktikak eta estrategiak.

Autonomia teknikoak, bestalde, eskatzen du “gehiago kontrolatzea ikerketa- eta azterketa-prozesua, haren erritmoak, erabili beharreko tresnak edo materialen idazketa eta erakusketa” (Rodríguez-Medela eta Salguero, 2011:12). Ordena honetan,

... ortodoxia akademikoak ezarritako kanonak alde batera utzita, diziplinak konpartimentu estanko gisa hartzeko ideia hausteko beharra

aldarrikatzen dugu; izan ere, ezagutzak bilatzea prozesu bat da, eta prozesu horretan mugak ez dituzten diziplina zientifikoek eta teknikoek jartzten, baizik eta diziplina horiek ikerketaren zerbitzura egon behar dute, ikasitako errealitateen ikuspegi garbiagoak izateko, zein jakintza-arlotara hurbildu behar den alde batera utzita. Gure ikerketetan, adibidez, antropologiatik abiatu gara, baina beste jakintza-arlo batzuetara ere jo behar izan dugu, zerikusia dutenak soziologiarekin (ez dugu partekatzen antropologiarekin duen mugapena), zuzenbidearekin, hiri-antolamenduarekin, arkitekturarekin, giza geografiarekin, historiarekin (ahozkoa eta idatzizkoa), artearekin eta ondare-ikasketekin edo ingurumen-zientziekin (Salguero, Sánchez-Cota eta Rodríguez-Medela, 2022:37).

Autonomia politikoa eta autonomia teknikoa garatu ahal izateko, funtsezkoa da nolabaiteko autonomia ekonomikoa izatea, hau da, ez egotea erakunde finantzatzaileen mende, geure lanaren jabe izanik:

Gure esperientzian oinarrituta, bizitzeko bilatu behar dugun mantenuaren garrantziaz gain –eta hori ez da gutxi–, ikerketa autonomoa egiteak ez du baliabide handirik eskatzen, ikerketa-lanak eskatzen duen denbora eta ahalegina bakarrik, bai eta proiektuarekiko, haren helburuekiko eta lankideekiko konpromisoa ere. Horren erakusgarri da, urte hauetan zehar beti izan dugun lan-prekarietatearekin, ordaindu gabeko proiektu ugari aurrera atera ahal izana, hein handi batean beste era bateko baliabideak eskuratzeko aukera izan dugulako, hala nola unibertsitate barruan eta kanpoan prestatutako pertsonak, eta beste esperientzia batzuetan parte hartu dugulako, haien bidez sareak eraikitzeko eta ezagutzak eta ikuspegiak

“ikerketa autonomoa egiteak ez du baliabide handirik eskatzen, ikerketa-lanak eskatzen duen denbora eta ahalegina bakarrik, bai eta proiektuarekiko, haren helburuekiko eta lankideekiko konpromisoa ere”

“Erlazionatzeko modu zintzo, orekatu eta errespetuzkoekin du zerikusia horizontaltasunak”

partekatzeko (Salguero, Sánchez-Cota eta Rodríguez-Medela, 2022:39).

Azkenik, ikasteko autonomia norberaren ezagutzaren gaineko erantzukizuna onartzera mugatzen da. Gure erreferente teoriko-metodologikoak izan daitezke akademiako jendea nahiz akademiatik kanpokoak, intelektualak eta aktibistak, edo bien nahasketa. Horren harira, batzuegandik eta besteengandik “hartzen dugu une bakoitzean aberastu gaitzakeena, gure ikerketen buru den lan enpirikoenarekin elkarrizketan jarritz” (Salguero, Sánchez-Cota eta Rodríguez-Medela, 2022:40).

Harremanen horizontaltasuna

Erlazionatzeko modu zintzo, orekatu eta errespetuzkoekin du zerikusia horizontaltasunak. Baina horizontalak izateak edo horizontalki lan egiteak, gure ustez, elkarrekin lotutako bi espaziotan hala izatea eskatzen du: taldean eta gure ikerketa-tesuinguruan.

Horrela, La Corralan horizontalki lan egiteak taldeko kideen berdintasuna eskatzen du (batez ere erabakiak hartzeko esparruetan) eta ekitatea lanaren banaketan, baina egoera bakoitzean kideek duten parte-hartzean dagoen aldeak ez



du esan nahi egiten dugunari buruz erabakitzeke ahalmen txikiagoa dutenik. Batak eta besteak kontzientzia kolektiboa hartzea eskatzen dute gutako bakoitzari zor zaion errespetuaz eta une batean edo bestean eska ditzakegun zaintzez.

Eta harreman-horizontaltasun hori iristen da gurekin lan egiten duten pertsonen eta kolektiboen ingurunera ere, “ikertzeko subjektuak” baino gehiago “esperientziako lagunak” baitira, ikerketa-prozesuan ere laguntzen dutenak. Asko eta askotarikoak dira hori gauzatzeko moduak, “iker-tzailea-ikertua” formula hierarkikoa zalantzan jartzetik abiatu eta “laguntasun epidemikoaz” ordezkaturaz ikerketa-prozesu osoan zehar (Holmes eta Marcus, 2008), ikerketa-ekoizpena itzultzea bezalako berezitasun garrantzitsuak barne:

...itzultzea ere ez da aitortzeko modu bat bakarrik. Aitzitik, zuzenean egin behar zaien interpelazioa da ikerketaren zuzeneko hartzaile diren pertsonen eta kolektiboen, ikerketaren benetako subjektu politikoen, itzultze hori jaso behar dutenei, bai beren gizarte-ekintzari, diskurtso-praktikari eta praxi politikoari buruzko diagnostiko autokritiko gisa, bai beren kausari lagun diezaiokeen tresna gisa, ahaztu gabe garrantzitsua dela ezagutza jakin batzuk ahalik eta pertsona gehienengana iristea (Salguero, Sánchez-Cota eta Rodríguez Medela, 2020:63).

Posizionamendua

Hasieran esan dugun bezala, ikerketa konprometitua posizionatzea eskatzen du, eta horrek, aldi berean, jauzi kualitatiboa egitea eskatzen du, ikerlari hutsak izatetik, egiten dakigun horrekin (kasu honetan, ezagutza bilatzea, sortzea, eraldatzea eta

“harreman-horizontaltasun hori iristen da gurekin lan egiten duten pertsonen eta kolektiboen ingurunera ere, “ikertzeko subjektuak” baino gehiago “esperientziako lagunak” baitira, ikerketa-prozesuan ere laguntzen dutenak”



Argazkia: La Corrala.

hedatzea) kausari ekarpena egin nahi dioten subjektu politikoak izatera pasatuz.

Gure posizionamendua onartzea, behin eta berriz erabilitako partzialtasunaz haratago, zintzotasun-ariketa egitea da, eta ez dio, inolaz ere, balioa kentzen ikerketari, alderantziz baizik, aukerak handitu egiten ditu. Horrek esan nahi du objektibotasuna abiapuntutzat hartzeari utzi behar zaiola eta lortu nahi den zerbait bezala ikusten hasi behar dela, mekanismo eta prozesu zorrotzak ezarriz. Izan ere, objektibotasunaren jabe garela pentsatzen badugu, ez diegu arreta jarriko gure pentsamendua osatzen duten eta konturatu gabe gure lana subjektibizatzen duten elementu horiei guztiei. Ezkertiarrek garela pentsatzeak esan nahi al du, bada, feministak, ekologistak, arrazakeriaren aurkakoak eta abar garela? Guk uste dugu ezetz.

Posizionatzeak ikuspegi dikotomikoak apurtzea ere esan nahi du, hala nola “objektiboa/subjektiboa”, “arrazoia/emozioa”, “teoria/praktika”, etab. Ikuspegi horiek eskaintzen dituzten elementu

kontrajarrien ikuspegiak ez du horrela funtzionatzen errealtatean. Ez dira kontrako elementuak, baizik eta tentsioan eta artikulazioan daudenak bizi izandako esperientzian. Zure subjektibotasuna aitortzetik abia zaitzke, eta aurrera egin ezagutza zorrotz eta sistematikorantz, intersubjektibotasunaren ideiarra (batzuetan utopikoa) hurbilduko den ezagutzarantz. Era berean, emozioa, subjektibotasunari lotua, ihes egiteko zerbait bezala ulertu da, baina egia esan, ikerketa bultza dezakeen elementua da, ñabardurak aurkituz eta ikuspegi arrazionalistago hori osatuz. Eta zer esan teoriaren eta praktikaren arteko harremanaz? Bada, bi elementu horiek atzeraelikatu egiten dira etengabe, teoriak praktika elikatzen du eta alderantziz.

“ Ezkertiarrek garela pentsatzeak esan nahi al du, bada, feministak, ekologistak, arrazakeriaren aurkakoak eta abar garela? Guk uste dugu ezetz ”

“Gure posizioa onartzeak, “gizarte-mugimenduetatik” eta “gizarte-mugimenduentzat” lan egiteak, ez du esan nahi propagandan aritzen garenik, lan zorrotzagoa, sistematikoagoa eta gardenagoa egitearen aldeko apustua egiten dugula baizik”

Gure posizioa onartzeak, “gizarte-mugimenduetatik” eta “gizarte-mugimenduentzat” lan egiteak, ez du esan nahi propagandan aritzen garenik, lan zorrotzagoa, sistematikoagoa eta gardenagoa egitearen aldeko apustua egiten dugula baizik.

Sormenezko moldagarritasuna

Gauzak ez dira beti nahi bezala ateratzen. Eta ikerketa autonomo batean errealitate sozialak ere markatzen ditu ikerketaren erritmoak. Horregatik, funtsezkoa da jarrera plastiko eta irekia izatea, sormenezkoa izateaz gain, prozesuan aurki ditzakegun gorabeheren aurrean. Adibidez, arriskuak hartu behar dira informazioa ekoizteko modu berriekin esperimentatzeko (hitzaldiak eta eztabaidak, beste kolektibo batzuekin topaketak, besteak beste), idazteko moduekin esperimentatzeko (batez ere “idazkera korala”) edo dibulgaziorako moduekin esperimentatzeko (testu-formatu klasikotik, kartoi-edizioetatik, podcastetatik eta bideoetatik, besteak beste).

Kasu batean zentratzeagatik,

...antzeko kezka dituzten gure hiriko eta beste hiri batzuetako beste kolektibo batzuekin izandako topaketak. Eztabaidarako eta elkarrizketarako gune horietan diskurtsoak eta praktikak biltzea bera oso pizgarria izan da gure ikerketetarako, eta, zalantzarik gabe, ondorengo ikerketak eta idazkerak elikatu dituzte topaketa horietatik hartu ditugun ekarpenek (Salguero, Sánchez-Cota eta Rodríguez-Medela, 2022:39).

Aplikagarritasuna

Gure ustez, ikerketak “zerbaitetarako” balio behar du. Baina zertarako balio dezake? Gizarte-mugi-

menduetatik lan egiteaz ari bagara, egiten dugunak lagundu egin behar die mugimendu horiei, bai testuinguru edo egoera jakin bat aztertuz, haiek ulertzeko eta hobeto esku hartzeko; bai gatazka bat zabalduz bere ertz guztiekin; edo tresna puntual eta estrategikoak sortuz, murgilduta gauden kausari zintzoki laguntzeko.

Ikerketak (eta ezagutzak, oro har) gizarte-mugimenduei lagun diezaiekeela erakusten duten adibide batzuk aipatzearen, ikusi dugu jardura jakin batzuen kronika bihurtu dela gure landa-egunkaria. Era berean, manifestuak eta beste testu mota batzuk egiten lagundu dugu, libretoak koordinatu ditugu kolektiboen ekarpenetatik abiatuta, administrazio-espeditenteak, hirigintza-planak, legeria eta abar kudeatu eta aztertu ditugu. Katalogazio etnologikoari buruzko txosten espezifikoak ere egin ditugu, modu koralean idatzitako esperientzia kolektiboen liburuak argitaratu ditugu, jardunaldiak, topaketak, hitzaldiak eta askotariko aurkezpenak antolatu ditugu, adibide batzuk jartzearren.

Beraz, aukera ugari daude ikerketa, termino zabaletan, eta hartatik etorritako produktuak, gizarte-borroketan lagun dezaketen tresna bihurtzeko.

Eskuragarritasuna

Ezagutza gizartea eraldatzeko tresna izan dadin, beharrezkoa da ezagutza hori jendearengana iristea, hau da, gure lana eskuragarri egitea. Baina zer esan nahi du horrek? Edizio inprimatuak merke eskaintzeaz edo edizio horiek deskarga libreko edizio digitalekin laguntzeaz hitz egin genezake, eta hala egiten dugu gainera. Eta egia da neurri horiek eskuragarri egin dezaketela ezagutza, baina ez gara hor gelditzen.

“ezagutza apalategietatik ateratzearen garrantziaz ari gara, erabilgarria izan daitekeen tokira eramatea, eta ulertzeko moduan betiere. Beste era batean esanda, ezagutu egin nahi dugu partekatze, eta partekatu eraldatzeko”

Gure lana jendearengana irits dadin lortzeko, funtsezkoa da geure buruari galdetzea norentzat idatzi edo hitz egiten dugun, hau da, hizkuntza eta edukia iritsi nahi dugun entzuleei egokitzea. Beti esaten dugu ikerketa bat dibulgazio-formatu askotan bidera daitekeela (testuak, topaketak, bideoak, irratia, sareak...), eta horietako bakoitza irizpide horien arabera pentsatu behar dela, ahalik eta gehien doitzuz, partekatzen dena ulertu ahal izateko, hori ezinbesteko urratsa baita sortutako ezagutzak “zerbaiterako” balio dezan.

Oro har, ezagutza apalategietatik ateratzearen garrantziaz ari gara, erabilgarria izan daitekeen tokira eramatea, eta ulertzeko moduan betiere. Beste era batean esanda, ezagutu egin nahi dugu partekatzeo, eta partekatu eraldatzeko.

Gogoeta gisa

Ikerketa autonomia beste modu ez-hegemoniko horietako bat da, ezagutza gizartea eraldatzeko tresna bihurtu nahi duena, “gizarte-mugimenduetatik” eta “gizarte-mugimenduetarako”. Horrek ez du esan nahi modu bakarra denik, eta onena ere ez da izango agian. Guri balio izan digu eta hartara iritsi gara teoriaren eta praktikaren arteko atzerailikadura-prozesu etengabearen.

Horren harira, aurkeztutako printzipioak ez dira dogma epistemikoak, ezta arau zurrunik ere; aitzitik, orientabide malguak dira, gizarte-mugimenduekin ikerketa soziala hobeto garatzen lagun dezaketenak; eta, oro har, ikerketa soziala “beste posizio batetik” ulertzen lagun dezaketenak, betiere ikerketa horren helburuak ez badira meritu akademikoak metatzea edo ordainsari profesionala ematea, baizik eta mundu hobearen aldeko gizarte-borroketa laguntzea.

“Ikerketa soziala “beste posizio batetik” ulertzen lagun dezaketenak, betiere ikerketa horren helburuak ez badira meritu akademikoak metatzea edo ordainsari profesionala ematea, baizik eta mundu hobearen aldeko gizarte-borroketa laguntzea”

Bibliografia

- Denzin, Norman (2003): “The Call to Performance”. *Symbolic Interaction*, 26. zk., 187-207. or.
- Dietz, Gunther; Álvarez, Aurora (2014): “Reflexividad, interpretación y colaboración en etnografía: un ejemplo desde la antropología de la educación”, Oehmichen, Cristina (ed.): *La etnografía y el trabajo de campo en las ciencias sociales*, UNAM, Mexiko Barruti Federala, 55-90. or.
- García-García, Esther; Salguero, Óscar; Sánchez-Cota, Ariana; Rodríguez-Medela, Juan (2015): “La potencialidad transformadora de la investigación autónoma”, Collados, Antonio eta Rodrigo, Javier (eds.): *Transductores 3. Prácticas artísticas en contexto. Itinerarios, útiles y estrategias*, Centro Guerrero, Granada, 45-52. or.
- Graeber, David (2008): “Nunca ha existido Occidente o la democracia emerge de los espacios intermedios”, Roca, Beltrán (coord.): *Anarquismo y antropología: Relaciones e influencias mutuas entre la Antropología Social y el pensamiento libertario*, La Malatesta Editorial, Madril, 60-103. or.
- Hale, Charles (2011): “Entre el mapeo participativo y la ‘geopiratería’: las contradicciones (a veces constructivas) de la antropología comprometida”, Leyva, Xochitl (coord.): *Conocimientos y prácticas políticas: reflexiones desde nuestras prácticas de conocimiento situado (Tomo ii)*, CIESAS, Chiapas, 482-512. or.
- Haraway, Donna (1995): *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, Madril, Ediciones Cátedra.
- Harding, Sandra (1987): “Is There a Feminist Method?”, S. Harding (ed.): *Feminist and Methodology. Social Science Issues*, University Press, Indiana, 1-14. or.
- Holmes, Douglas R.; Marcus George E. (2008): “Collaboration Today and the Re-Imagination of the Classic Scene of Fieldwork Encounter”. *Collaborative Anthropologies*, 1. zk., 81-101. or.
- Rappaport, Joanne (2008): “Beyond Participant Observation: Collaborative Ethnography as Theoretical Innovation”. *Collaborative Anthropologies*, 1: 1-31.

Roca, Beltrán (2008): *Anarquismo y antropología*, Madril, La Malatesta Editorial.

Roca, Beltrán (2012): “La antropología anarquista que se está empezando a fraguar”. *Libre Pensamiento*, 70. zk., 78-83. or.

Rodríguez-Medela, Juan; Salguero, Óscar (2011): “De investigador a sujeto político: cuestionamientos sobre parámetros científico-metodológicos en la búsqueda y aplicabilidad del conocimiento”. *Revista Espiral. Estudios sobre Estado y Sociedad*, XVIII. liburukia, 51. zk., 9-38. or.

Salguero, Óscar, Rodríguez-Medela, Juan eta Sánchez-Cota, Ariana (2020): “Investigación con movimientos sociales: la devolución”, Estalella, Adolfo (coord.): *Ética de la investigación para las ciencias sociales*, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Madril, 63-69. or.

Salguero, Óscar, Sánchez-Cota, Ariana eta Rodríguez-Medela, Juan (2022): *Conocer desde otra posición. Principios de una investigación autónoma*, Granada, Biblioteca Social Hermanos Quero.

Solidarixs con la Casa del Aire (2016): *La Casa del Aire, para sus vecin@s. Una historia de lucha contra la especulación inmobiliaria*, Granada, Solidarixs con la Casa del Aire eta Asociación de Estudios Antropológicos La Corrala.

Tarín, Adrián (coord.) (2015): *Miradas Libertarias*, Madril, Los Libros de la Catarata.



Irudia: La Corrala.



Argazkia: Iris Murillo.

Europar iruditerian, ijitoek izan behar ez dena irudikatzen dute

Pastora Filigrana. Zuzenbideko lizentzia burutu zuen 2004an Sevillako Unibertsitatean, eta, gaur egun, Sevillako Abokatuen Elkargo Ohoretsuko jarduneko abokatu da. Lan- eta sindikatu-zuzenbidean espezialista da, eta atzeritarrei buruzko zuzenbidean aditua. 2010ean, Giza Eskubideak, Kulturartekotasuna eta Garapena masterra burutu zuen Sevillako Pablo Olavide Unibertsitatean. 2015ean, Ekonomia Sozialeko Enpresen Zuzendaritzako Aditu titulua lortu zuen Andaluziako Ekonomia Sozialeko Eskolan. 2012az geroztik, kooperatibista da. Arrazakeriaren aurkako ekintzailea da, eta *El pueblo Gitano contra el Sistema Mundo* liburuaren egilea.

Paulo Freireri jarraituz, esan ohi dugu hezkuntza kritiko emantzipatzailea proposamen askatzailea dela zapalduetako pertsonentzat, komunitateentzat eta herrientzat. Ijitoen herriak oso ondo ezagutzen ditu zapalkuntza-sentimendua eta askatasun-desira. Jakin nahiko genuke zer den zurretzat hezkuntza emantzipatzailea.

Pastora Filigrana. Ni ez naiz hezitzailea, ez dut hezkuntzan zuzenean lan egiten, baina, nik ulertzen dudanez, hezkuntza emantzipatzaileak zerikusia du pentsamendu kritikoa eraikitzearekin eta tresna nahikoa izatearekin pertsona guztiek modu kritikoa pentsatu ahal izateko, ez daitezen konformatu "hau hala da eta ez dago bestela egite-

rik” ideiarekin. Nire iritziz, emantzipazioa lortzeak esan nahi du gai garela inposatutakoa zalantzan jartzeko eta beste jomuga batzuk imajinatzen saiatzeko, hots, beste forma batzuk, non ongizatea izango den denen helburu nagusia. Errealitatea pentsatzea, ez soilik norberaren edo gutxi batzuen ongizatea lortzeko, baizik eta denon ongizatea lortzeko. Beraz, niretzat hori litzateke hezkuntza emantzipatzailea: pentsamendu kritikoaren tresna bat, eta justizia soziala duen jomuga bat.

Modernitatearen proiektuak desegituratu egin ditu komunitateak eta, ondorioz, gizarte demokratiko, bidezko eta jasangarrien eraikuntzan lotura sozialek duten garrantzia galdu egin da. Kapitalaren eraso indibidualista eta kontsumistaren aurrean, komunitateko bizitza berreraikitzen lagunduko duen hezkuntza-ekintza bat behar dugu. Zer ikas dezakegu ijitoen herriaren bizimodutik, lankidetzatik eta esperientzietatik?

Pastora Filigrana. Gai hori landu nahi izan dut *El pueblo gitano contra el sistema mundo* liburuan. Nire ustez, Espainiako estatuan (edo gaur egun Espainiako estatua den horretan) biztanleria ijitoa deuseztatzeko eta suntsitzeko proiektu bat egon da, eta ijitoen bizitzeko, izateko, pentsatzeko eta sentitzeko moduen aurkako jazarpen horren arrazoi nagusia izan da bizimodu berezi bat zutela, Estatuko antolamendu ekonomikoa edo soziala urratzen zuena. Nagusiki, ijitoek beren ekonomia-aren autogestioa edo bizitzeko baliabideak lortzeko modu autonomoa edukitzea zen horren arrazoia, ijitoentzat oso bestelako patu ekonomikoa baitzegoen prestatuta eta gordeta: laneko nitxo prekarioenak eta esplotazio handienekoak betetzea, hala nola nekazaritzakoak eta meatzaritzakoak.

Beraz, leku horiek betetzeko erresistentziagatik eta ekonomia autogestionatzeko moduei eustegatik egin zaie jazarpena, baita lankidetzaren ere. Ijitoen jazarpenaren kausa

“ emantzipazioa lortzeak esan nahi du gai garela inposatutakoa zalantzan jartzeko eta beste jomuga batzuk imajinatzen saiatzeko, hots, beste forma batzuk, non ongizatea izango den denen helburu nagusia ”

“ horretan datza ijitoen ekarpen nagusia: lankidetzaren esperientzia horretan, eta besteren konturako eredu ekonomikoari erresistentzia eginez beren ekonomia mantentzearen esperientzia horretan ”

eta ondorioa izan den horixe da, nire iritziz, ijitoen herriaren historiak proiektu emantzipatzaileari egin diezaiokkeen ekarpenik handiena.

Gaur egungo familia nuklearren ideiatik harago doa lankidetzaren hori. Egundak, etxebizitza bat erosten duen jendeak etxebizitza hori eros dezake, amak edo aitak dirua eman dielako. Lankidetzaren hori oso estua da familia nuklearretan. Ijitoen herriaren lankidetzaren askoz zabalagoa izan da –are zabalagoa eskasia-uneetan–, eta ez da erraza talde osoa elkartzeko mantentzea; gatazkak konpontzeko lana eskatzen du. Eta, nire ustez, horretan datza ijitoen ekarpen nagusia: lankidetzaren esperientzia horretan, eta besteren konturako eredu ekonomikoari erresistentzia eginez beren ekonomia mantentzearen esperientzia horretan.

Hezkuntza-ekintza emantzipatzaileko askotariko subjektu politiko batez ari gara. Subjektuen aniztasunak berekin dakar konplizitateak eta aliantzak eraiki beharra, eredu ekonomiko kapitalista, heteropatriarkal eta kolonialista eutsiezin horri aurre egiteko. Nondik hasi? Antolatzen ari al da ijitoen herriarekiko topaketarako espaziorik? Ba al dago esperientziarik martxan? Zer erakusten digute?

Pastora Filigrana. Aliantza eta fronte zabalen aldekoa naiz ni, noski. Izan ere, finkatutako min askoren atzean, min horren hariari tiraka hasten bagara, kausa berak aurkituko ditugu, eta itxuraz desberdinak diren eta min desberdinak eragiten dituzten arazo sozialek kausa berak dituzte; hori dela eta, aliantzak ehundu behar ditugu, edo, behintzat, elkar ulertzen eta entzuten saiatu behar dugu. Egia da sarritan, horri buruz pentsatzean, batez ere ezker zurian, pentsatzen dutela besteak direla zure espazioetara etorri behar dutenak eta zure antolatzeko moduak kopiatu behar dituztenak. Ijitoekin aliantzak sortu nahi baditugu, ijitoek etorri behar izaten dute gure espazio politikoeta-

“alde bat ondo bizitzea beste alde nekez bizitzean oinarritzen dela askotan, eta horrek zaildu egiten du berdintasun-egoeran hitz egin ahal izatea eta aliantzak sortzea”

ra; migratzaileekin aliantzak sortu nahi baditugu, haiek etorri behar izaten dute gugana. Nire ustez, hori akatsa da, eta elkarrizketak baldintza berdinezaleagoen bidez gauzatu behar dira, ez da espero behar ijitoak zure mugimendura etortzea edo sindikatzea. Bestelako elkarrizketak behar dira.

Uste dut, gaur egun, mugimendu antirrazista dela ijitoen herriarekin lankidetzaz edo aliantza gehien gauzatzen ari den espazioa. Pertsona migratzaileak eta, batez ere, migratzaileen seme-alabak, pertsona nazional arrazializatuak, aliantza-espazio horiek aurkitzen ari dira, nagusiki hiri handietan, haietan antirrazismoa agertzen ari baita, bai migratzaileen, bai haien seme-alaben eta bai ijitoen aurkako arrazakeriaren kontra egiteko.

El pueblo gitano contra el sistema-mundo liburuan adierazten duzunez, elkarguneak ezarri behar dira aldaketa soziala gauzatzeko. Zure ustez, posible al da talde sozial emantzipatzaileen arteko agenda komun baterantz egitea?

Pastora Filigrana. Posible izateaz gain, uste dut hori dela modu bakarra gauza higuigarri honetatik, kapitalismo patriarkal eta arrazista honetatik, irteteko. Ulertzen dut eta badakit egin behar duguna ez dela erraza; gainera, desberdintasun-egoeretan aliantzak sortzea zaila da, alde bat ondo bizitzea, sarritan, beste alde gaizki bizitzean oinarritzen baita. Etxebizitza-politikan, adibidez, herri-errentismo handia dago: langile-klaseko edo erdi-mailako klaseko jende asko diru-sarrera estrak lortzen ari da etxebizitza alokatuz egoera prekarioagoan dauden pertsonen, migratzaileei... hor interes-talka dago, nahiz eta, azken finean, guztiak izan daitezkeen langile-klaseetakoak. Aliantza horiek zailak dira. Edo, feminismoaren kasuan, emakume migratzaileak lan egitera datoz, beste emakume nazional batzuek aukera izan dezaten zaintza-lanetatik eta etxeko lanetatik aske geratzeko eta beren jarduera profesionala egiteko edo, agian, proiektu politiko emantzipatzailearen bat garatzeko. Horregatik diot

alde bat ondo bizitzea beste alde nekez bizitzean oinarritzen dela askotan, eta horrek zaildu egiten du berdintasun-egoeran hitz egin ahal izatea eta aliantzak sortzea. Hala ere, uste dut elkarrizketa horiek aurrera eraman behar ditugula, eta, normalean, desabantaila sozial txikieneko egoeran dagoen jendeak eskuzabalagoa izan beharko lukeela bere ikuspuntuaz etsitzeko, elkarrizketa horiek posible izan daitezen.

Solidaritate internazionalistaren eta lankidetzaz kritikoaren esparrutik gatozenok gero eta kontzienteago gara –diskurtso-mailan, behintzat– kolonialismoaren kritika erradikala egin behar dela. Alde horretatik, pixkana, gero eta gehiago dira Hegoalde globaleko beste epistemologia batzuekin egindako trukeak eta jasotako ikaskuntza, baina oraindik ez dago ia batere hausnarketarik kolonialismoak Iparralde globalean indarrean jarraitzeari buruz. Inoiz ez gara pentsatzen jarri, adibidez, ijitoen herriak jasan dituen (eta jasaten ari den) zapalkuntzen historiari buruz. Zergatik iruditzen zaizu egokia ikerketa hori egitea? Zer planteamenduren berri ematen digu begirada horrek?

Pastora Filigrana. Hurbilen dugun bestetasuna alboratzen dugu beti, eta gai gara gugandik oso urrun dauden komunitateekiko enpatia edo defentsa bultzatzeko, adibidez, Latinoamerikako jatorrizko herrietako taldeekiko, baina ijitoak hor daude, trenbidearen edo errepedearen beste aldean, eta ez dira ikusten, haiek baitira gertuen dugun bestetasuna. Uste dut beti gertatzen direla prozesu horiek. Bestalde, Espainiako estatuko iruditerian, baita Europako iruditerian ere, zer ez dugun izan behar irudikatzen dute ijitoek, “ez izatearen” leku hori hartzen dute, nahi ez den leku gisa ikusiko baita. “Normala” izatea, *payoa* izatea, Espainiako estatuan, ijitoa ez izatetik eta *moroa* ez izatetik eraikitzen da. Zuria eta katolikoa izatea da ideala, eta kontrakoa, islatzen zaren ispilua, izan behar ez dena, *moroa*, musulmana eta ijitoa dena izan da historikoki. Nire iritziz, horrek asko zailtzen du barne-kolonialismoa mahai gainean jarri ahal izatea, eta ausardia handia behar

“Europako iruditerian, zer ez dugun izan behar irudikatzen dute ijitoek, “ez izatearen” leku hori hartzen dute, nahi ez den leku gisa ikusiko baita”

da horrela pentsatzen hasteko, horretarako zalantzan jarri behar baita oso sakon heltzen den iruditeria kolektiboa, hots, ijitoen aurkako jarrera, eta, funtsean, zalantzan jartzen da gaur egun Espainiako estatua deritzon horretan bizi diren pertsonen identitatearen ezaugarri oso sakon bat.

Ez dago proiektu feminista bakarra, ezta mundua ezagutzeko eta bertan ekiteko modu bakarra ere. Zer ikas dezakegu emakume ijitoengandik, errealitateari begiratzeko dugun modua deskolonizatzeke eta “mendebaldeko feminismoaren” analisi-tresnak zabaltzeke?

Pastora Filigrana. Ez dakit oso ondo zer erantzun, ez dakit zer ikas daitekeen emakume ijitoengandik; edo, beharbada, ikaskuntza da aitortzea besteak existitzen direla, badirela beste errealitate batzuk, beste begirada batzuk, emakumearen errealitatea era askotakoa dela, ez dagoela emakumearen kategoria homogeneorik, beste zenbait gai ere sartzen direlako (klasea, arraza, kolonialtasuna)... Hortaz, uste dut ikaskuntza dela besteen existentzia ikustea, eta entzuten jakitea zer planteamendu egiten dituzten bituztea egokitu zaien lekutik.

Oso iraultzailea iruditzen zaigu mundua ijitotzeko ideia, baita hezkuntza emantzipatzailearen proposamenerako aukera gisa ere. Herriaren kontrahegemonia sustatzen duen, baina, aldi berean, leku jakin batetik sortua izan den mugimendu hau bipentsatzeak zer erronka planteatzen digu?

Pastora Filigrana. “Mundua ijitotzearen” proiektua ez da nirea, baizik eta Silvia Agüerorena eta Nicolás Jiménezena, eta esamolde benetan egokia da. Kontua da kontrabalio desberdin batzuk proposatzea. Lehia eta oparotasun indibiduala da neoliberalismoaren ideala, eta modu indibidualean lehiatzea eta aberastasuna metatzea. Nire ustez, *ijitotzea* izango litzateke balio horiek aldatzea eta kolektiboa denaz gehiago pentsatzea; ekofeminismoak interdependentziarekin adierazten duenaren oso antzekoa da hori. Oparotasuna modu komunitarioan edo kolektiboan pentsatzea litzateke, eta inposatzen zaizkigun arrakasta sozialeko ereduak zalantzan jarri eta beste errealitate batzuk lehenetsia, beste balio batzuk... Ijitoen herriak, sarritan, arrakastaren ideal soziala sakrifikatu du, arrakastaren ideal propioa eraiki du, eta, horren eraginez, makurtu gabe eutsi dio hazkunderaren eta aberastasunaren mesedetan lan prekarioak egin behararren xantaiari.





Nortzuk gara

• Martin Etxea

Hemen aurkituko gaituzue

• <https://elkarcredit.org/martin-etxea>

Martin Etxea, joan-etorriko elkartasuna

“Gallartako Martin Etxea, giza eskubideen defendatzaileentzako eta ekintzaile sozialentzako gunea”. Horrela du izena Mundubat Fundazioaren harreara-programak. Bizkaiko ezker aldeko eta meatzaldeko kolektibo sozialek babesten dute. Erakunde horiek ibilbide ezberdinak dituzte, eta haien artean daude Gallartako Meatzaritza Museoaren lagunen taldea, scout-ak, emakumeen elkarteak eta elkarte feministak, Gallartako Koadrilak, Lekomotiv, Abanto Sahararekin, pentsiodunen kolektiboak eta Gallartako talde ekologista. Haiak gabe ezinezkoa litzateke elkartasunez beteriko prozesu eder hau.

Martin Etxea programak hirugarren herrialdeetako eskaera historiko bati erantzuten dio: giza eskubideen eta lurraldearen defentsagatik mehatxatuta dauden pertsonen eta kolektiboen ematen die arreta. Eta tokiko eskaera bati ere heltzen dio –Ongi Etorri Errefuxiatuak elkartearen eskutik–: kolektibo migratzaileentzako harrera-prozesu solidarioak bultzatzeari.

Esan daiteke Martin Etxearen barruan 4 eszenatoki daudela. Eszenatoki bakoitzak bere eremua du: lurralde okupatu eta eremu sahararra (Maroko), Abya Yalako eremua (Kolonbia, El Salvador, Guatemala), Amazigh eremua (Rif, Atlas...) eta La Via Campesinaren barruan duden nekazari-erakundeena (Kolonbia, Palestina...). Lau errealitate horiek zenbait borroka partekatzen dituzte, eta babes internazionalistaren beharra dute. Bizileku horiez gain, baratze bat, oilategi bat eta boluntarioentzako gunea bat daude, bidelaguntza integrala eta kohesionatua sustatzeko.

Prozesuaren gakoak

Azpimarratzekoa da programaren funtzionamenduaren oinarriko zutabeetako bat boluntarioak

direla. 85 pertsona inguru dira, eta egoiliarrekin batera parte hartzen dute lan-batzordeetan. Haiek dira batzordeak eta haien zereginak:

- **Harrera Batzordea:** harrera-eskaerak jasotzen ditu entitateen, erakundeen eta mugimendu sozialen aldetik. Horrez gain, elkarbizitza-arauak partekatzeko eta eguneratzeko gunea ere bada.
- **Mantenimendu eta Elikadura Subiranotasun Batzordea:** hainbat ekintza behar dira espazioa egituratzeko, agroekologia lantzeko eta arrautzak ekoizteko. Ekintza horien xedea bizigarritasuna hobetzea da, baita urte-sasoi bakoitzak eskatzen dituen laborantzak eta zaintzak planifikatzea ere. Lurrarekin eta naturarekin harremanetan egoteak, bizitzeko baliabideak emateaz gain, ahalegin fisikoa eskatzen du, baina egoiliarrentzat premia bizikoa den atseden mentala ere ematen du aldi berean.
- **Sentsibilizazio, Genero eta Komunikazio Batzordea:** eragin eta lan sozio-komunitarioaren lehentasunak ezartzen ditu, jatorrizko lurraldeetako arazo araberak. Antzerkiak egiten ditugu, hitzaldiak ikastetxeetan, agerraldiak Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean; Abanto Zierbenako jaietako programan hartzen dugu parte, ikasleak eramaten ditugu baratzea bisitatzera...
- **Osasun Mentaleko Batzordea:** Martin Etxean bizi diren pertsonen izan ditzaketen traumen aurrian, laguntza profesionala eta gertuko dugu behar hori betetzeko.
- **Antolaketa Batzordea:** Martin Etxearen jasagarritasun juridikoa eta finantzarioa zaintzen du, eta bere bideragarritasuna bermatzen duten erakundeekin dago harremanetan.

Hilabete bakoitzeko lehen larunbatetan bilera bateratuak egiten dira egoiliarrekin, prozesu pertsonalak eta kolektiboak lantzeko eta jarduerak lehenesteko. Parte hartzeko metodologiak erabiltzen dira, itzulpenari behar adina denbora emanez. Bilera horien ostean, kulturarteko sukaldaritzari ematen diogu tarte. Inguruko kolektiboek ere parte har dezakete tarte horretan, eta baratzeko produktuak oinarri hartuta diseinatzen ditugu otorduak. Janariaren alorra aberatsa da aniztasunean; produktu jakin bat ulertzeko ikuspuntu desberdinak biltzen ditu.

Hileko bigarren larunbatetan auzolanak egiten dira, eta ekintza horietan egoiliarrek eta tokiko erakundeetako pertsona autoktonoak aritzen dira elkarrekin. Auzolanaren aurretik, baratzeko produktuei eta agroekologiari buruzko mintzaldiak eman ohi dira..

Egonaldia epe baterakoa da (urte eta erdi ingurukoa), baina administrazio-erregularizazioarekin, errotzearekin, asiloarekin, lan-kontratuarekin, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin eta abarrekin lotutako dokumentuak lortu ahala zehazten da. Une horretatik aurrera, egoiliarren irteera planifikatzeko egiten den jarraipena hobeto egokitzen zaio pertsona bakoitzari, eta, ondorioz, Martin Etxeak eta harrera eskatu zuen erakundeak berma dezakete pertsona horien garapena autonomoagoa izango dela. Paternalismoa saihestea da Martin Etxearen funtsezko printzipioetako bat.

Orain arte ikasitakoa

Prozesu honetan, mundu-ikuskerak eta herrien borroka aintzat hartzen ikasi dugu. Bost urte hauetan zehar, benetan saiatu gara jakintzak trukatzen, eta zalantzan jarri ditugu errealitatea eta gure bizimoduak interpretatzeko moduak. Harrean hartutako pertsonen irakurketa alternatibo bat erakutsi digute. Bestelako errealitateak, pentsamoldeak eta bizimoduak ikusarazi dizkigute, masa-komunikabideek inposatzen dituzten ikuspegi unibertsalizatzaileekin bat egiten ez dutenak.

Aurreiritzietatik ihes egin behar izan dugu, eta espazioa, denbora eta lana eskaini behar izan diegu gure ikuspegi eurozentrikoa eta koloniala osatzen duten beste ikuspuntu batzuei. Alde horretatik,



Mundubat Fundazioak utzitako irudia.

ezinbestekoa zaigu gehiago entzutea, eta, horretarako, egoiliarren denborak harmonizatu behar izan ditugu Martin Etxeko boluntarioen eta langileen denborekin.

Era berean, ikasi dugu erresilientzia handitu egiten dela komunitatea (kasu honetan, Martin Etxea) kohesionatuta dagoenean eta analisirako eta ekintzarako ikuspuntuak dituenean.

Azkenik, Martin Etxeari esker, batasun batean antolatu dira hainbat elkartasun-eragile. Toki-erakundeek, ikastetxeek, administrazio publikoek eta gizarte-mugimenduek esperientzia partikularrez betetako espazio berean egin dugu topo, eta esperientzia horiek elkartasun kolektiboa behar dute garai hauetan bizi dugun egoismoari aurre egiteko.

Eneko Gerrikabeitia,
Mundubat Fundazioako kidea.

begirada konprometituak

zinema
dokumentalak



Izenburua: Fabricando mujeres

Lekua, urtea: Euskadi, 2018

Ekoizpena: Al Borde Films eta SETEM Hego Haizea

Zuzendaria: Paula Iglesias eta Ana Serna

Iraupena: 1 ordu eta 20 minutu

Sinopsia. Dokumentala “Indarkeria kontsumitzen dugu?” izeneko azterketan oinarrituta dago. Bi zati independente ditu, eta horietan, Fabrikaren garroek harrapatzen dituzten esparruak jorratzen dira. Maitek 80 urte ditu eta Fabrikak asmakizunak egiteko sortzen dituen hondakinak jasotzen jarraitzen du. Bere lantegian espazio subertsibo bat sortu du, Fabrikak zabaltzen dituen emakume-ereduen estereotipoei aurre egin ahal izateko. Horretarako, kolaboratzaile-sare zabala du, eta bere kezkek eta borroka partekatzen ditu haiekin (SETEM Hego Haizea).

Hemen eskuragarri: <<https://fabricandomujeres.org/es/documental>>.

Izenburua: Las que sobrevivimos

Lekua, urtea: 2023

Ekoizpena: Farmamundi

Zuzendaria: Itxaso Díaz

Iraupena: 25 minutu



Sinopsia. Sexu-indarkeria gaur egungo gatazka armatuetan erabiltzen den armarik krudel eta suntsitzai-leenetako bat da.

“Biziraun dugun emakumeok” kontakizun koral bat da, sexu-indarkeriak emakumeen bizitzetan eragiten dituen bizipenak eta ondorioak erakusten dizkiguna. Elkarrekin lotutako sei historia dira, eta erakusten digute zer-nolako indarra eta erabakitasuna duten emakume horiek beren duintasuna defendatzeko, aurrera egiteko eta beren bizitzak berreraikitzeke. Sei kontakizun, indarkeria horiek desagerrarazteko neurri sendo eta eraginkorrak hartzera behartzen gaituztenak. Indarkeria horiek bizitzen dituzte emakumeek eta neskek gerra-testuinguruetan, sistematikoki. Erasotzaileen zigorgabetasunaren aurrean, basakeria gizartean ezartzen delako eta egunerokotasunaren parte bihurtzen delako. Noiz arte utziko dugu hori gertatzen? (Farmamundi).

Hemen eskuragarri: <<https://lasquesobrevivimos.saludglocal.org/#teaser>>.


argitalpenak

Izenburua: Investigaciones en movimiento. Etnografías colaborativas, feministas y decoloniales

Editoreak: Aurora Álvarez Veinguer, Alberto Arribas Lozano eta Gunther Dietz

Tokia, urtea: Buenos Aires Hiri Autonomoa eta Madril, 2020

Argitaratzailea: Giza Zientzietako Kontseilu Latinoamerikarra eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa eta Estatuko Ikerketa Agentzia



Sinopsia. Beste jakintza batzuk ekoizteko eta berresteko gogoahahia/premia da nagusi liburu honetan, bai eta beste modu batzuetako jakintzak ekoizteko nahia/premia ere, eta bi helburu nagusi betetzeko sortu zen. Alde batetik, ikerkuntzari eta ikerkuntzaren jardunbideari buruzko gogoeta du helburu, ikerkuntzaren ikuspegitik. Kapitulu hauetan, zenbait proiektu aurkezten eta aztertzen dira, eta, haiek abiapuntutzat hartuta, mapa bat eraikitzen da, ikerkuntzako gauza zehatzetan, materialtasunean, zer gertatzen den azaltzeko: prozesuan zehar hartutako erabakiak, jakintza-arloan ezartzen diren harremanak, erabili diren teknika espezifikoak, eta koordinatu horiek kontuan hartuta ikerketa egiten dugunean izaten diren tentsioak, kontraesanak eta aukerak. Bestetik, egiten jakite desberdinen arteko topagunea eta elkarrizketarako espazioa izan nahi du. Kapituluetan, zenbait koordinatutatik zabalduetako proiektuak aurkezten dira, bakoitza bere berezitasunekin: etnografia kolaboratiboa, etnografia feminista, ikerkuntza dekoloniala, edo ikerkuntza eta ekintza parte-hartzailea (Liburuaren sarrera).

Hemen eskuragarri:

<<https://biblioteca.clacso.edu.ar/clacso/se/20201216092831/Investigaciones-en-movimiento.pdf>>.

Izenburua: Gizartea eraldatzeko hezkuntza eta ikerketa. Euskadiko eta Kolonbiako unibertsitate-komunitate kritikoaren arteko artikulazio-esperientzia sistematizatzea

Egileak: Amaia del Río, Gema Celorio, Juanjo Celorio, Iris Murillo, Diana Granados, Axel Rojas, Julio R. Jaime eta Robinzon Piñeros

Tokia, urtea: Bilbo, 2023

Argitaratzailea: Hegoa, Universidad del Cauca eta Universidad Surcolombiana



Sinopsia. Sistematizazio honetan, esperientzia pedagogiko batean lortutako ikaskuntzak aurkezten dira. Honako hauek dira esperientzia horretako parte-hartzaileak: Caucaoko Unibertsitateko (UNICAUCA) Etnografia Lantegiko ikerketa-haztegia; Surcolombiana Unibertsitateko (USCO) In-SUR Gentes ikerketa-taldea eta Hezkuntza eta Gizarte Jardunbideen Ikerketa-taldea (IPES), eta Hegoa, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko Hezkuntza Taldea. Batetik, egungo erronka sozial, ekologiko, ekonomiko eta kulturei aurre egiteko ezagutza emantzipatzailearen elementu kritikoak aurkezten dira, eta, bestetik, ekintza kolektibo eraldatzailearen prozesuen ikaskuntzak (Hegoa, UNICAUCA eta USCO).

Hemen eskuragarri: <<https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/624>>.

erakundeak

Kolektiboaren izena: La Laboratorio. Espacios de investigación feminista

Eragin-esparrua: Eragin-esparrua: Buenos Aires, Quito, New York, Porto Alegre eta Madril

Webgunea: www.laboratoria.red



Borrokaren ideialak. *La Laboratorio nazioz gairako tresna bat da, ikerkuntza aktibista feministaren alde egiteko. Ikerkuntza aktibista feministatzat hartzen dugu lurralde anitzetan inplikaturik gaudenok egiten duguna, gatazka eta borroka zehatzetan inplikatzeko garenok egiten duguna, aldi berean ezberdinak eta komunak diren hizkuntzak eta galderak abiapuntu hartuta. Ikerkuntza horrek ikuspegi eta desmen feminista aplikatzen die prozesu disidenteeneri, “emakumeen” gaien mugatze- edo sailkatze-ahalegin oro gairatuta. Helburua, hain zuzen, Laboratorio baliatzea da, ekoizpen teoriko kokatua egiteko eta nazioz harago zirkularazteko, borroka bezainbeste. Lan-ardatzak: sindikalismo feminista eta prekaritatea; zorraren irakurketa feminista; neoliberalismoa, kontraeraso kontserbadorea eta lehian ari diren feminismoak; indarkeriak eta justizia feminista; zainketa, komunitatea eta elementu komunak; eta feminismoak eta migrazioak (La Laboratorio).*

Kolektiboaren izena: t.i.c.t.a.c. taller de intervenciones críticas transfeministas
antirracistas combativas

Eragin-esparrua: Espainiako estatua

Webgunea: www.intervencionesdecoloniales.org



Borrokaren ideialak. *t.i.c.t.a.c. azterketa eta esku-hartze kritiko transfeminista antirrazisten lantegi autonomoa da. Munduan ditugun krisi eta indarkerien testuinguruan espazio bat ireki beharra aukera gisa aurkezten da, erresistentzia dekoloniala, epistemikoa eta bisuala artikulatzeko, politika kolonial kapitalista eurozentrikoen aurka.*

Ezarritako eredu ekonomiko eta politikoei aurre egiteko –mundu osoan errepikatzen diren pentsatzeko, hautemateko eta jarduteko moduak dira–, de/kolonialitatearen bidezko gaur egungo gatazka-moduak adierazi nahi ditugu. Amnesiaren eta errepikapenaren aurrean, mugako pentsamendua eta ikerketa disidenteak garatzeko, eraldaketa irudikatze eta aldaketa sozialerantz jarduteko politikak lantzen ditugu (t.i.c.t.a.c. azterketa eta esku-hartze kritiko transfeminista antirrazisten lantegi autonomoa).

ezinbesteko
agenda



Ekitaldia: Ikastaroa “Grandes desafíos de hoy para un futuro sostenible. Agendas para el cambio desde una mirada sistémica”

Antolatzailea: Futuro en Común

Lekua eta urtea: Online, autoprestakuntza

Informazio gehiago: <<https://coordinadoraongd.org/formacion/cursos/grandes-desafios-de-hoy-para-un-futuro-sostenible-agendas-para-el-cambio-desde-una-mirada-sistematica>>

Ikastaroa Futuro en Común erakundeak antolatu du, ECODES eta Espainiako Garapenerako GKE-en Koordinakundearekin batera, eta garapen jasangarriaren erronkak eta haien izaera interdependentea eta globala aztertuko dira. Horrez gain, gai hauek ere landuko dira: egiturazko kausak, gizarte zibilaren rola eta izan litezkeen konponbideak (tokiko esparrutik esparru globalera egituratuta), 2030 Agendak ekar ditzakeen aukerak eta garapen jasangarrirako politiken koherentzia sendotzeko beharra, garapen-eredu bidezkoa, inklusiboa, jasangarria eta giza eskubideetan oinarritua sustatzeko. Nazioartean ospea duten pertsonak izango ditugu: Yayo Herrero, Julia Sánchez, Luis González Reyes, Teresa Pérez González eta Inés M. Pousadela (Espainiako Garapenerako GKE-en Koordinakundeak).



Ekitaldia: Latinoamerikako V. Kongresua: “Ecología política y nuevos horizontes de rebeldía: enraizando saberes, r-existencias y alternativas”

Deialdia: Mexiko Hiriko Unibertsitate Autonomoko Ekologia Politikoaren Ikerketarako Kolegioarteko Taldea

Tokia eta data: Mexiko Hiria, 2024ko abenduak 4, 5 eta 6

Informazio gehiago: <www.clacso.org/actividad/convocatoria-y-v-congreso-latinoamericano-de-ecologia-politica-ecologia-politica-y-nuevos-horizontes-de-rebeldia-enraizando-saberes-r-existencias-y-alternativas>

V. Kongresuaren gai nagusiaren helburua da eztabaidak, hausnarketak eta eraikuntza kolektiborako prozesu bat sortzea, ekologia politikoaren proposamen kontzeptualak eta parte-hartzaileek egungo gizarte- eta ingurumen-gatazkari buruz dituzten epistemeak eta borroka-esperientziak abiapuntu hartuta. Horregatik, gure eskualdean eduki politikoak, borroka-estrategiak, esparru kontzeptualak eta ekologia politikoaren metodologiak zabaltzen dituzten eraldatze-ideiak eta -ekintzak proposatzera eta eztabaidatzera gonbidatzen zaituztegu (Ekologia Politikoaren Ikerketarako Kolegioarteko Taldea, Mexiko Hiriko Unibertsitate Autonomoa).

matxino artean en rebeldía



“Por si acaso”

Querido Baltasar:

Yo no creo en la magia, pero en el centro nos han pedido que os escribamos. Prefiero hablar solo contigo porque somos del mismo color. Me gustaría saber de qué país eres. Imagino tu piel negra y suave, como la mía. Como la de mi madre. No sé nada de ella desde que salí de Mali. En España me han dejado quedarme porque soy menor de edad. En realidad no recuerdo cuántos años tengo. Creo que diez, quizá uno más.

Me han dicho que puedo pedirte algo, pero desde que estoy aquí, no necesito nada. Hasta me han comprado unas playeras nuevas. Quiero decir sin usar, recién salidas de la tienda. Mi hermana Mariam las miraría con envidia, pero contenta. Mi educador me llevó a una zapatería. Casi lloro cuando le dije “estas no me aprietan”. No sé por qué. A veces casi lloro, pero sin motivo. Es como si, de repente, se me viniera a los ojos toda el agua que tragué en el mar, llegando a Canarias.

No necesito nada. Solo espero que la trabajadora social localice a mi primo, en Bamako. Para que él busque a mi madre en la aldea. Mi pueblo está en Sikasso, así que Amadou viajará un par de horas. Encontrará a mamá moliendo mijo. El dirá: “Bintou, Ibrahim ha aparecido.” Ella llorará y él la abrazará con cuidado, porque es tan fuerte, que lo hace despacito para no hacer daño. Luego ella le servirá té y él le hablará de mí, del centro.

Prefiero no imaginar nada más porque echo de menos el olor de la ropa de mamá. Y a mis hermanos pequeños, pelear con ellos en la tierra. Tampoco quiero acordarme del barco. Pero si existes, Baltasar, ya sé qué regalo quiero. Tráele otro bebé a la madre a la que le ahogaron el suyo. El pobre lloraba mucho. El patrón le tapó la cabeza con un balde, hasta que ya casi no le escuchamos. No vi cuando le tiró al agua pero los gritos de ella los sentí como arañazos. No quiero acordarme de eso, pero tráele otro bebé. Uno negrísimo y guapo, como ella. Aquí, en España, va a poder llorar todo lo que quiera, aunque sea negro. Y si le insultan por eso en el colegio, no importa. Porque lo peor ya ha pasado. Lo peor se quedó allí: en el mar, flotando boca abajo.

De lo único que me gusta acordarme es del chico de Cruz Roja, que me recibió. Llevaba gafas y se llamaba Javier. Me alegré mucho de verle, aunque no le conocía. Me dio una manta que parecía de plata. Y una botella de agua. La sed me mareaba y tenía los labios rasgados, pero estaba bastante bien. Se lo dije y me respondió, en francés, que pronto iba a poder descansar y comer. A mí ya me daba igual todo. Habíamos llegado. España era aquel puerto, aquella noche caliente y aquel chico con gafas. Nunca más vi a Javier pero, si puedes, regálale algo, Baltasar. Un balón de fútbol o algo mejor. Lo que él quiera.

Te he dicho que no creo en tu magia, pero solo es... por si luego no pasa. No estoy acostumbrado, pero, por si acaso, voy a pedirte dos cosas más.

Haz que mamá consiga dinero. Que le vaya bien en la cooperativa, con los jabones de manteca del karité. Que gane lo suficiente para que mi hermana siga yendo a la escuela y pueda ser enfermera. Yo aquí estudiaré mucho y trabajaré en cuanto pueda, para mandarles dinero.

Y al niño del mar, tenlo contigo, con el niño Jesús al que visitas, calentito en ese establo del cielo.

No quiero escribir más para que no se me llenen los ojos de mar. Pero recuerda: que Amadou llegue a la aldea, que a mamá le vaya bien con la manteca, el balón de Javier, un bebé nuevo para ella y que el otro esté en el cielo, no en el mar.

Gracias por leer mi carta. Amén. O adiós. No sé cómo tengo que terminar. Soy Ibrahim Toure. De Zantiebouguou. Estaré esperando.

Estíbaliz Madrazo San Emeterio

(Relato ganador del V Concurso de relatos Cortos “Emociónate con tu tierra” del Ayuntamiento de Jabugo).